

Antonio Arrue: Euskaltzaindiaren eta Francoren erregimenaren laguntzaile

Antonio Arrue: colaborador de Euskaltzaindia y el régimen franquista

Antonio Arrue : collaborateur d'Euskaltzaindia et le régime franquiste

Antonio Arrue: collaborating with Euskaltzaindia and the Francoist regime

SUDUPE, Pako
Idazlea. Euskal Herriko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2012-12-30

Noiz onartua: 2013-07-09

Euskera. 2012, 57, 3. 823-838. Bilbo
ISSN 0210-1564

Liburuak argitaratzeko, eta Euskaltzaindiaren biltzarrak eta bertso txapelketak antolatze-ko laguntza eman zuen. Eta gastronomiaz idatzi zuen euskaraz eta zenbait literatur kritika ere egin zituen; karlista tradizionalista euskaltzalea izan genuen. Era berean, azpijokoan aritu zen Nemesio Etxaniz edo On Manuel Lekuona bezalako jeltzaleen aurka, haien merituak ezkatatzen eta haien jarduera publiko euskaltzalea oztopatzen. Alde biei erreparatu gabe, Antonio Arrueren jardueraren irudi faltsua gera liteke gure kultur memorian. Eta bi-degabea litzateke!

Hitz-gakoak: Euskaltzaindia, *Egan*, zentsura, Nemesio Etxaniz.

Ayudó a la hora de organizar reuniones de Euskaltzaindia, competiciones de bertsolaris y publicar libros. Escribió sobre gastronomía y realizó algunas críticas literarias; fue un carlista tradicionalista y vasquista. Pero a su vez, conspiró contra miembros del PNV, tales como Nemesio Etxaniz o Don Manuel Lekuona, tapando/ocultando sus méritos o dificultando su labor en pro del euskera. Si no nos fijamos en las dos vertientes, puede quedar en nuestra memoria una imagen falsa de la labor de Antonio Arrue. Cosa que sería injusta.

Palabras clave: Euskaltzaindia, *Egan*, censura, Nemesio Etxaniz.

Il apporta sa contribution dans l'organisation de réunions d'Euskaltzaindia, de joutes de bertsolaris et dans la publications de livres. Il écrivit des ouvrages de gastronomie et plusieurs critiques littéraires ; il fut carliste traditionaliste et bascophile. Pourtant il conspira contre des membres du PNV, comme Nemesio Etxaniz ou Manuel Lekuona, en occultant leurs mérites et en entravant leurs travaux en faveur de la langue basque. Si nous ne considérons pas le deux aspects de sa personne, nous pouvons garder une image fausse du travail d'Antonio Arrue et ce serait injuste.

Mots-clés : Euskaltzaindia, *Egan*, censure, Nemesio Etxaniz.

Arrue gave assistance in publishing books and organising *Euskaltzaindia's* meetings and *bersolari* contests. He wrote in Basque on gastronomy and also wrote a number of pieces of literary criticism. He was a traditionalist Carlist Basque language loyalist. At the same time, he was active in plotting against PNV members such as Nemesio Etxaniz or Manuel Lekuona, silencing their merits and hindering their public activity in support of Basque. Unless we bear in mind both of these aspects, we will create a deceptive image of the activity of Antonio Arrue in our cultural memory. And that would be unjust!

Keywords: *Euskaltzaindia*, *Egan*, censorship, Nemesio Etxaniz.

Sarrera

Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian A. Arrueri buruzko artikulu laudoriozko bat argitaratu zen 2011ko azken alean; haren bi alderdi jorratzen dira: Arrue politikaria, batetik; eta euskaltzalea, bestetik, Euskaltzaindiaren eta *Egan* aldizkariaren lankidea. A. Arrueren ideologiaz eta hark politikari gisa egindako lanaz informazio jakingarriak ematen ditu delako artikulu horrek, baina beste alderdiaz, Arrue euskaltzaleaz den bezainbatean, apologia egiteaz gain ez dakar deus berririk, eta artikulu honen xedea hain zuzen A. Arrueren beste alde ez hain goresgarri hori azaleratzea da, argitan ezartzea, eta haren ekarpena merezi duen lekuan kokatzea.

Besteak beste dio artikulugileak ezezaguna dela hark euskararen alde egindako lana, eta gainera giltzarri izan zela euskararen aldeko borrokan 50eko eta 60ko hamarkadan. Ez nator bat; ez ezezaguna izan da, baizik eta oso ezaguna –nagusiki fama kaskarrekoa, euskalgintzan norbait izan ziren euskaltzale gerra-galtzaileen artean– eta giltzarri ere ez, beraren euskararen aldeko kultur lanagatik –nahiz ekarpena ukatzen ez zaion–, baizik eta batez ere erregimenean aski ongi kokatua zegoelako laguntzaile ere izan zitekeelako euskaltzaleen arteko bilerak eta antolatzeak –elkartzeko eskubidea auzoan baitzegoen Francoren erregimenean–; eta laguntzaile izan ere izan zelako, kontrolatzaile eta zentsuratzaile izan zen bezala. Beraz, figura anbigualentea.

1. Euskararen alde egindako lanaren hedadura eta mugak

J. M. Torrealdaik *Artaziak* liburuan oso ongi laburbiltzen du frankismoak maite zuen euskara zein zen: «*Frankismoak maite (?) duen euskara herri-mai-lakoa da, tradizionala, antigoaleko kulturaren ekarlea. Horri deitzen dio jatorra. «Sano regionalismo»aren hizkuntza litzateke.*

Borrokatzen duen euskara, aldiz, euskara jaso da, kultura, kultur tresna gisa erabili nahi dena. Izan ere, frankismoak euskarari eman dion egitekoa oso bazterrekoa da, folklorikoa, familia-barnekoa, hilzorian dagoen gizataldeek bakarrik

erabiltzekoa. Euskara ez da hirian, pulpitan edo eskolan ibiltzeko hizkuntza, beraiek esan ohi zutenez. Jokabide horren funtsa ezin argiago adierazi zuen Donostiako *La Voz de España* egunkariak (1937.4.13): «El peligro para un Imperio es la coexistencia de dos o más idiomas culturales». (...) Euskara ongi dago, nekazari eta arrantzaleentzat denean; burugabekeria da euskara hizkuntza kultu bihurtzeko pretentsioa» (Torrealdai, 2000).

Jakina, Torrealdairen azterketaren eskutik jarraituz, berrogei urtean, gauza guztiek bezala, bere bilakaera izan zuen zentsurak. Hasiera batean, 40ko hamarkadaren erdialdera arte gutxienez, gidatzaile edo «dirigista» izan zen, eta gerora aldatuz joan zen, zer egin behar den esatetik zer ez den egin behar esatera pasatu zen.

Hemen ez dugu frankismoaren garaiko zentsuraren bilakaeraren azterketa xehaturik egingo, horren baitan A. Arrueren lantegia kokatzeko, baina zenbait gertakari adierazgarri bai ekarriko ditugu, zantzu esanguratsu batzuk eta garaiko iruzkin koalifikatuak.

1953an, Iparragirren omenaldirako –Madrilen *Gernikako arbola* estreinako kantatu zuenaren mendeurrena ospatzen zen–, Urretxun, olerki lehiaketa ofiziala antolatu zen. Nemesio Etxaniz aurkeztu zen, eta sariren bat lortu ere bai, nahiz ez aurrenekoa. Honela idatzi zion Andima Ibinagabeitiak Nemesio Etxanizi lehiaketa horretaz:

«Zorionak ere eman bear dizkitzut irabazi duzun sariagatik, ots, Iparragirre ´ren omenez egin eralguntzan irabazitakoa. Nere uste kaxkarran, zuk bear zenukean, bete-betea, aurreneko saria. Ikusi dut Bordarik aurkeztu zuen erri poema ere. Ez dago gaizki, baina errikoien errikoiez, inspirazio laburreko arkitu dut. Zer dugu «euskerak popular» ori? Poetan ametsak kabian bertan sakailtzeko asmatu duten ezpata gaizto bat. Orrela beartu nai ditute gure poeta euskaldunak garaiko ezere ez idaztera. Argi ikusi da ori Iparragirre ´ren batzaldian. Amaika lan baidzik ez ditute aurkeztu euskeraz. Zergatik? Olerkari sentitzen diranen inspirazioa popularkeri orrekin ito dutelako. Ikusiko zenuen egak libre utzitzekotan [sic] zenbat aurkeztuko ziren. Garaia dugu onuzkero txorakeri oiek al[bo] batera uzteko. Erriak ez du euskerarik irakurtzen, ez popularrik ez eta bertzerik, ain ederki Orixe ´k esan zuenez. Beaz alper-lan ori utzite, obe dugu gere bidetik euskera goi mailalara iasotzen ekin, bakoitzak

bere almenaren neurriak. Gero ere, literatura guztietan bezela, gurean idazlan garaioak izkera eta erria bera ere goraltzatuko dute» (1953-VIII). Argitaragabea.

Antzera idatzi zuen Pariseko *Euskal Deya*-n 1953ko azaroan, 365. alean: «batzaldirako bertsuak errikoi bear zutela, bertsularien ariora taintuak. Auxe da gero, gure olerkarien egak moztu-bearra! Zer dala-ta bertsularien ariora egiñak? Batzaldia antolatu zuten iaunek euskera goi-maillatara inola ere ikusi nai ez dutelako. Aiek euskera gaur arkitzen dan eror-zuloan geruago ta sakonago ikusi nai dute; usteltzen, iltzen. Ez nago ni erri-bertsularien aurka, aitzitik aien alde nago. Bakoitzari berea ordea...».

Herriko seme kutun izendatu zuten 1953an Urretxun Iparragirre. A. Arruek parte hartu ote zuen jaialdi horretan? Segur aski bai. Urte hartan bertan ziotson Nemesio Etxanizek Andima Ibinagabeitiari, Arrue bezalako karlista euskaltzaleak beharrezkoak zituztela erakunde publikoetatik laguntzak lortzeko. Zegaman, 1960an, Zumalakarregiren heriotzaren 125. urteurrenaren ospakizunean parte hartu zuen hizlari gisa A. Arruek. Euskaraz ideia hauek adierazi omen zituen:

«...reiteró el compromiso del carlismo con los «fueros, usos, costumbres y lenguas de los diversos pueblos de las Españas». Para nosotros –dijo-, las libertades de los pueblos, las libertades regionales no tienen más que un límite: la unidad de la gran patria española. Para nosotros, por ejemplo, no es Rey legítimo quien no sea amante verdadero del auténtico pueblo; ni tampoco el que no haya jurado previamente, bajo el Árbol de Gernika, los Fueros del País Vasco» (Martorell, 2011).

Herri-poema, bertsoak nahi zituzten olerkiak bainoago Urretxun Iparragirre omentzeko. Bertsoak maite al zituen A. Arruek? A. Zavalak 2008an Arrueren *Idaztiak eta hitzaldiak* liburua apailatu zuen, eta hitzaurrea egin zion. Hori irakurrita, ikusten da A. Arruek usadiozko bertsoa maite zuela, eta bertsolarietara laguntzen ziela guardia zibilek jarritako oztopoak-eta gainditzen, bazituelako adiskideak. Bertsogintza modernoa ez zuen aukerarik izan asko ezagutzeko 1976an hil baitzen, baina ez dakit oso gustuko izango ote zuen –jakina, eskubide guztia zuen gustuko ez izateko–. Behin, 1976an edo, hil zen urtean segur aski –hitzaurrean ez da izendatzen urtea, baina

esaten du gehiago ez zituela bertsolariak entzungo-, Oiartzunen bertsolariak entzuten izan omen ziren biak ala biak, eta bertso saioaren ondotik etxera bueltan, horrela aitortu omen zion Arruek: «Gaurko bertsolaritzak artifizialkeriz kutsatzeko arriskua du». Franco hil berritan, haren aurkako bertsoren batzuk entzun ote zituen? 1976an, Oiartzunen, artifiziala bertso-gintzan zer ote zen?

Zer iradokitzen ari gara: A. Arruek euskara soilik bertso, dotrina eta horrelakoetarako nahi zuela? Ez ote zuen, bada, gastronomiaz euskaraz idatzi? Bai, eta literatur kritika banaka batzuk ere egin zituen.

Hortik asko zegoela erregimeneko gizonen kudeaturiko erakundeek antolatutako lehiaketetan ez da zalantzarik: alegia, Torrealdaiak adierazten zuen horretatik, hots, euskara maila herrikoi apolitiko apalerrako soilik onartzearena, hortik gorako alorretan hego-puntak mozturik. Harelere, ezin da ezkutatu egiari zor zaiona ukatu gabe, A. Arrue, Aingeru Irigarai eta Koldo Mitxelenarekin batera, 1954ko bigarren zatitik aurrera *Egan* birmoldatu, modernizatu eta erabat euskaraz ateratu zutenetako bat izan zela.

Lan gehiena K. Mitxelenak egin zuen: zinema eta literatur kritika, eta letra eta arte munduko famatuei egindako elkarrizketen bitartez-eta, baina A. Arruek ere bere alea ekarri zuen: gastronomiari buruzko artikulua eta beste zenbait literatur kritikekin-eta; inork ukatu ez diona, bestalde!

Beste hau ere esan beharra dago: bi eredu nagusi zeuden 50eko hamarkadan: *Euzko-Gogo*a eta *Egan*. Hura euskara goi mailetara jasotzen ahaleginean, bide klasikotik, eta *Egan* maila apalagoan, modernoago alde batetik, baina, bestetik, goi mailetan gaztelaniari borrokarik planteatu gabe –Euskaltzaindia bezala–.

Baina gauzak bere neurrian: A. Arruek ez zuen, dakigunez, bere abokatu lanean inoiz erabili euskara, eta ezta inoiz aipatu ere horrelakorik egin behar zenik, hots, euskara arlo guztietara zabalduta, beste batzuek egin zuten bezala; *Euzko-Gogo*a-koek egin bezala. Bere ideologiak eta erregimenean zuen lekuak galarazten zion osoki.

2. Alde ezkutuagoa: laguntzaile-kontrolatzaile-zentsuratzaile lana

Goazen berriz ere ideologiaz eta tratabidez lagun izan zuen Aita Zavalarengana, ea zer zioen tolosarrak *Auspoa saila* ateratzeko A. Arruek emandako laguntzaz. Kontatzen du, lehenbizi, denok dakiguna: zentsura zegoela garai hartan, eta hiru kopia utzi behar izaten zirela Donostian, eta baimena emanaz gero, aurrera, eta bestela han geratzen zela liburua «kotxea semaforo gorrian jartzean bezala».

Jarraitzen du esaten A. Zavalak Arrue ez zela liburu-zentsorea, hots, euskal liburuei buruzko txostena egiten zuena, baina hark aldeko gutuna eginez gero, agintariek aintzat hartzen zutela. Eta gainera, eta hor dago aitoren adierazgarri-salagarriena, zentsurari ondo pentsatzen jarrita ez zitzaioala tranpa egiten; izan ere, A. Arrue konpromisoan ez jartzeko autoreak berak ondo neurtu behar zuen zer jarri, eta hartara, beraz, «era ortan egilleak berak egiten du bere liburuen zensura».

Erregimenak, besteak beste, A. Arrueren bitartez lortzen zuen euskal idazleak berak bilakatzea beren buruen zentsuratzaile; hartara ez zegoen zentsuratzaileei dirua ordaindu beharrik eta eragin bera lortzen zen, zentsuratzailerik gabe zentsura ezartzea. Zer hoberik erregimenarentzat!, noren bitartez eta A. Arrueren arartekotasunaz.

Gurean, zentsuraren zoko-moko ezkutuak arakatzen eta argitara ateratzen lan gehien egin duena J.M. Torrealdai dugu. Zer dio Torrealdai Antonio Arruez:

Han-hemenka eskuratu ditudan datuen arabera, Donostiako Ordezkaritzan zentralizatu zen urtetan euskarazko argitalpenen «irakurketa». Donostian zentsore-talde bat badagoela badakigu, eta zerbitzuak eskaintzen dizkiela beste ordezkarietzi. Baina inongo paperetan ezin izan dut aurkitu «irakurle», «informatzaile» edo «zentsore» hauen izenik. Delegazioko txostenak, euskal liburuei buruzkoak ere, delegatuak berak sinatzen ditu beti, nahiz eta ez jakin euskaraz.

Lekuko askoren ahotan dabil Antonio Arrueren izena. Arrue karlista eta abokatu ezaguna zen, Asteasun jaio eta Donostian bizi izan zena.

«Asteasuko beltza» zuen gaitzizena. Egan-en zuzendari izan zen Koldo Mitxelena eta Aingeru Irigarairekin batera. Euskal literatura ongi baino hobeto ezagutzen zuen, eta bereak dirudite txosten batzuek.

Edozein modutan ere, badirudi Antonio Arrue ez zela plantillakoa. Plantillan bazeuden beste batzuk, prentsa eta komunikabideen zentsura egiten zutenak. Aldizkari zuzendariak bi aipatzen dituzte sarritan: Angel Casadamón, militarra, eta Florencio Salsamendi. (Torrealdai, 2000).

Aurrera jarraitu aurretik, adierazpen horietatik honako esaldi hauek go-goan har ditzagun: *Lekuko askoren ahotan dabil Antonio Arrueren izena (...)* «Asteasuko beltza» zuen gaitzizena (...) eta bereak dirudite txosten batzuek (Torrealdai, 2000).

1956an, badakizu irakurle, zein euskal argitalpenek aztoratu zituen bazterrak: Mogelen *Peru Abarca*-ren argitalpenak. Pentsa, zein liburu arrisku-tsua! Hala zioen J.M. Torrealdai: *Nola debeka daiteke liburu bat Julio de Urquijo Euskal Filologiako Mintegia tartean egonda?* (Torrealdai, 2000).

Madriko agintariak Donostiakoak baino zorrotzagoak bide ziren, eta lortzen zuten etekinik. Julio Urkixo Mintegiko buruak, liburua aurrera ateratzearren, honako proposamen hau egin zion Madrikoari:

«Le proponemos que en la nueva edición se siga fielmente la primera: Durango, 1881. (...) Consideramos que en ella se deberían hacer algunas modificaciones, mejor dicho supresiones en primer lugar, la del `Prólogo al lector vizcaíno´ de la original, que sería sustituido por el que le ha sido ya enviado del Sr. Arrue de este Seminario. En segundo lugar, la del diálogo final `entre dos amigos eclesiásticos´, junto con las traducciones de discursos que viene a continuación» (Torrealdai, 2000).

Ez da txorakeria bat; zentsura zein bizirik zegoen adierazten du. Donostiakoek bahe zabalagoa izango zuten, baina bahea hor zegoen, eta bi aldeetatik eutsia, Madriletik eta hemendik, zer da eta euskarazko liburu zaharrak berrargitaratzeko.

Hirugarren aldiz ere aipatzen da A. Arrue Torrealdairen liburuan, eta hirugarren aipamena, lehen begiratuan, positiboa da, Orixek Txillardegiren *Peru Leartzako* eleberria moralari zegokionez Arruek baino estuago iritzi zuela adierazteko aipatzen baitu.

Baina errepara diezaiogun kontuzago eta pausatuago:

«Políticamente, no existe nada censurable. De todas suertes, y aunque el autor es católico practicante, desde el punto de vista religioso resulta un tanto fuerte, pues la exposición de las ideas laicistas del protagonista no se halla debidamente contrarrestada por las manifestaciones de los personajes católicos de la obra. (...)

Como la literatura vasca –nos referimos a la escrita en vascuence– ha sido cultivada hasta ahora principalmente por eclesiásticos, y, por ello la mayor parte de las novelas de dicha literatura han sido de color «rosa», choca esta clase de obras; pero, por otro lado, esta novela, precisamente por ello, supone en cierto modo un avance, y creemos que será bien recibida por los amantes «objetivos» de la literatura.

Por lo que se refiere al estilo, esto es, al vascuence que se emplea en la obra en cuestión, merecerá elogios de todos los `antisabinianos´ y, desde luego, se halla acorde con la declaración de la Academia de la Lengua Vasca de fecha 2 de abril del corriente año conceptuando netamente vascas las palabras procedentes del castellano pero arraigadas ya desde hace tiempo en el vascuence» (Torrealdai, 2000).

Erregimenaren zutoinak zein diren argi adierazten da: lehenik, Eliza –kontuz ibili behar da elizgizonak ez gogaitzeko–; bigarrenik, politika, hots, Francoren erregimenaren aurkakorik ez egotea, eta hirugarrenik ere politika, oraingoan Sabino Aranaren politikaren aurka, jeltkideen aurka.

Zentsura-lan horrek, arretaz erreparatuz gero, laguntzen du ulertzen zergatik jokatu zuen Arruek N. Etxaniz edo Manuel Lekuonarekin jokatu zuen bezala.

Gorago aipatu dugu 1954an egin zutela euskaltzain. Hasiera batean, N. Etxaniz eta Joseba Rezola jeltzale euskaltzaleek-eta ez zuten txarretsi Lojendio eta Arrue karlistak euskaltzain egitea; alderantziz! Hona horren frogak: 1953ko abuztuan, Etxanizek Ibinagabeitiari gutuna:

«Emen aurki Donosti´ra bizi izatera joatekoa naiz; ta an, J.l. [Jainkoa lagun] ezer al-ba-det, aztartu bear det jendea. Gure jokaerarik egikorrena, Amigos del País bazkunaren itzalpean lan egitea izango genuke. Orre-la baimenak errezago iritxi genezazke. Gañera, karlista euskaltzale batzuek

gurekin artzea, mesede genuke. Aldundiko Lendakaria, Caballero, ta Arrue 'tar Antonio, lege-gizona, ortarako egokiak izango ditugula, uste det.» Argitaragabea.

Eta Ziburutik J. Rezolak A. Ibinagabeitiari:

«Jakingo dezue agian Arrue 'tar Antonio eta Lojendio 'tar Joxe Mari, euskalzain egin dituztela. Orrela esaten dit Amillaitz 'ek [Nemesio Etxaniz] ta berak dionez bestaldekoak izan arren euskeltzale benetakoak omen dira. Ba-dakizue Arrue au Asteasu 'ko legegizon bat dala eta karlisten arten buru ibili izandu dana. Uste dut Parma 'tar Pantzeska Xabier 'en idazkari izandu zala. Ba-dakizute gañera Parma au errege-nai oietakoa dala eta beste karlista askok, Franco 'ren aldeko diranak ez dutela begi onez ikusten. Diotenez euskel-izlari ona da baña nik ez det jakin euskera-ren alde itzaldi oietzaz gañera ezer egin duenik.

Lojendio jaunak berriz euskeraren aldeko izena izan du betikoz eta au ere izlari ona izan dala entzun izandu det. Ba-dakizute Lojendio 'tarren kastakoa dala eta onekin jabetuko zerate gauza askotzaz. Ala ere, diotenez, Lojendiotarren artean jatorrena omen degu eta batzuk diotenez benetan jatorra.

Neri iruditzen zait bi gizon ok euskalzain egin ba-dituzte, eralguntza oni abertzaletasun usaiia kentze-arren izango zala eta bide batez euskera-rentzat erretzasun eta laguntasun geio arkitzen ote duten. Ala izan dedilla.» (1954-12-21). Argitaragabea.

Aurrerago ere N. Etxanizek ez zuen inolako ezinikusirik agertzen Arrue-ren alderako:

«Garagarrilleko lenbiziko igandea izan zala, uste det. Bilbo 'n Arriaga antzokian egundoko euskal-jaia eratu ziguten. Arrue legegizonak (karlista bera, alabearrez) euskeraz eman zigun jardun bizigarri bat. Aren esanetatik bat, auxe: Euskera nundik datorren aztartzea baño geiago jakin nai dugula Euskera nora dijoan. Txalo aundiak jaso zituan. Ondoren Mitxelena Koldo 'k erderaz Euskaltzaindia 'k zerabilzkin asmoak azaldu zituan. (.) Nere Yorgi Manrique 'rena azken-ikutu-zai dut. Aspaldi burutu nizun, baña zuzenketak egiteko, besteren iritxi-begira nago. Arrue 'k itzaurrea egiteko asmoa dio, ta dotore azaldu nai dute.» (1956-VII-6). Argitaragabea.

Ez da hor batere gaitzespenik ageri; aitzitik, lankidetzat. Beraz, ezin da esan A. Arrue karlista tradizionalista zelako susmo txarrez hartu zutela N. Etxaniz bezalako jeltzaleek.

Ematen du inflexio-puntua 1960ko 339 euskal apaizen gutunak ekarri zuela. Nemesio Etxanizek A. Arruek berari eta On Manuel Lekuonari egingdako belzkeriak aipatzen ditu batez ere, eta Koldo Mitxelenari egindako zerbaitek ere bai.

Batetik, gutun pribatuetan: A. Ibinagabeitiari:

«Zuek, orko euskaldunen iguina dezue. Guk, zer esango ote-degu, emengo EUSKALTZAINDI 'ko zenbait jauntxoei buruz? ... Nere zorioneko METODOA ba-dakizue noiztik dabillan erditu ezinik. Emen dira zezenak! Eztakizue asko, nola dabiltzan Metodo ori galdu naian. Ezta berealakoan azalduko, gauzak horrela ba-dijoaz. Oien lana auxe besterik ezta: gure gizaldiak euskerari eragin dion aurrerapena, ondatzea. Ba al-dakizu Arrue 'tar Antonio, (Asteasu 'ko Beltza du lendik gaitz-izena), nolako setati dabillan nere Metodo ori aurrera pasa ez dedin? Nik «rr» ta «ll» erabiltzen, zoritxarrez nere liburuan. Ai, ene, bada ta!

Gizon ori eden-utsa degu, ta komedianta ederra gañera, bere burua euskaltzale agertzen maixu jende-aurrean; baña pixka bat axtartu ezker, politiko zikin bat besterik ezta. Joan da lengo batean CCC 'ko Zuzendarirengana, ta itz txukunekin auxe esan dio: NOS QUIERE METER POR LOS COJONES.

Gizajoa, nunbait barrabillak mindu dizkio nere Metodo galgarri orrek. Orrelakotxeak dira gizon azpikeriz betetako orren lanak. Azkenean, nere izenik gabe azaldu bear du Metodoak. Onelaxe erabaki du gizontxo orrek. Eta utzi dezagun onenbestean. Geroak neurtuko du orren azalkeri ta billaukeria». (1961-VII-21) Argitaragabea.

Hurrengo urtean, osterat Ibinagabeitiari:

«Ba al-dakizu Arrue 'k egin didan azkenengoa? Irrati-lanen leiaketa sortu zuten, eta neri eman bear, ba, aurrenengo saria, ta or ibilli dira erabakirik eman nai ezik. Azkenean «desierto» deklaratu dute txapelketa. Desierto ori ezta Erandio 'koa izan, noski. Orrelako xaltzan parre egitea izaten da onena.» (1962-II-28). Argitaragabea.

1962an jokatu zen gerraondoan estreinako Euskal Herriko bertsolari txapelketa. N. Etxanizek Ibinagabeitiari gutunez kontaktatzen dionez, hor ere azpijokoan aritu ziren A. Arrue-eta txartelak saltzeko orduan:

«Euskera aldetik, pozgarri izan zan atzoko eguna. ASTORIA antzokian, Donostia 'ko zabalenean, egundoko jendetza bildu zan Euskalerriko Bertsolarien txapelketa erabakitzeko. Uztaipide aitortu zuten, Basarri 'ren gain, txapeldun. Ta ezta kizu, errietatik nola ibilli dan jendea, txartel eske barrura sartu nairik. Baiña Centro de Atracción y Turismo 'a ta gure Arrue ta abar ziran tartean, eta egundoko zikinkeria izan da txartel kontu orretan. Takillan txartelik ez; eta sarrera guziak ixilpean saltzen ari izan dira. Auek esku artean artzen duten guzia, zikindua azkenerako». (1962-XII-30). Argitaragabea.

Eta gero artikuluko batean, inon argitaratu bazen Alderdi-n argitaratukozena 1964an.

«Resulta bastante divertido el observar los manejos turbios de los que tratan de constituir entre nosotros el monopolio de todo lo referente a la cultura vasca, para dar al exterior la sensación de que ellos la apoyan, y al mismo tiempo impedir en el interior la labor que pueden realizar en pro de nuestra lengua y demás peculiaridades los que están capacitados para la misma.

En todas las fiestas populares euskéricas, un señor que ya desde antaño tenía dadas buenas muestras de su fobia hacia todos los que no se allanaran a sus estrechas ideas políticas, se arroga el derecho de soltar una soflama euskérica con latiguillos fáciles de un pretendido entusiasmo vasquista. Pero poco a poco se ha visto obligado a sacar a la luz pública sus trapos sucios, dejando bien patente la poca consistencia de su fervor euskérico.

Metido por la puerta trasera en la Academia Vasca, en su calidad de Comisario político para todo lo que se refiera al renacimiento vasco, lo mismito que en Rusia, reparte boletos de afectos y desafectos al régimen, cuidando puerilmente de impedir que éstos últimos laboren en pro de nuestra cultura o de que sus nombres no aparezcan en las obras debidas a su pluma.

Asimismo, en los Concursos de Literatura Vasca, con absoluto desprecio de la Moral, impide que el fallo de los jueces caiga en favor de sus di-

sidentes políticos; o lo que es aún más ridículo y da la medida ínfima de su calidad humana, prohíbe que los favorecidos por el fallo aparezcan consignados en la Prensa, escatimando sus nombres a la publicidad y creando unos autores fantasmas que resultan la diversión del público durante unos cuantos días.

De esta forma, boicoteó durante casi un año la publicación del Método de Vascuence con discos de la Academia CCC, prohibiendo cuando no pudo impedir su publicación, el consignar al frente de la obra el nombre de su autor. (.)

El año pasado (hace dos años tendría que decir ahora), se anunció un Concurso de Guiones Radiofónicos en euskera. El fallo había que darlo a favor del sacerdote Nemesio de Etxaniz. El referido Comisario político formaba parte del tribunal seleccionador y creyó que podía hacer del Concurso lo que le viniera en gana, y así fue retrasando el fallo durante cinco meses largos. No le valió su treta, porque el Centro de Atracción y Turismo quería volver a convocar otro doble Concurso de Cuentos y Guiones Radiofónicos en euskera (.) Por fin, obligado por reiteradas instancias del Comité de las Fiestas Euskaras, declaró desierto el premio, repartiendo las tres mil pesetas arbitrariamente entre cinco concursantes. Como, a pesar de sus deseos, el mayor premio había que otorgárselo al sacerdote anteriormente referido, se prohibió toda relación en la Prensa del correspondiente fallo (...)

Con Don Manuel Lekuona, el caso se agrava. Este sacerdote sufrió cruelmente a raíz del deplorable Movimiento con el asesinato de dos hermanos, uno de ellos sacerdote, sacrificados por los «Cruzados». Parece que esos señores que prepararon aquella ola de crímenes debían al cabo de 25 años demostrar un pudor y un arrepentimiento elementales por lo sucedido, esforzándose de una manera particular en mostrarse especialmente obsequiosos con los familiares de sus víctimas, sobre todo tratándose de un sacerdote y habiendo ellos blasonado de ultracatólicos.

Pues no hay nada de eso. Al contrario, todavía andan envenenando el ambiente. A don Manuel de Lekuona se le había encargado por el Comité de las Fiestas Euskaras de este año (del año pasado), una conferencia en euskera. Pero la Junta de los Torpedeadores le descartó del programa por haber dicho sacerdote sido uno de los 339 firmantes. Antes le retiraron una mísera gratificación que le entregaban por los diversos trabajos que le encargaba el Seminario Julio de Urkixo.

Este es el respeto que sienten hacia los sacerdotes estos señores que se pasaron la vida tachando a los demás de malos católicos. Lo mismito que en Rusia, se tolera a los sacerdotes afectos al régimen; a los demás se les procura una respetabilísima serie de represalias y desconsideraciones (.)

Amigo ASTEASUKO BELTZA, procure retirarse a tiempo de esos enredos, porque de otra suerte, dentro de poco, corre el riesgo de cargar con la responsabilidad de todos los chanchullos de mala ley que surjan en el campo de la cultura vasca (...)

Este artículo lo teníamos almacenado hace bastante tiempo. A última hora lo retiramos por bien de paz y para no envenenar el ambiente más de lo que está. Pero hete aquí que ASTEASUKO BELTZA ha rebasado el último límite que todavía le mantenía en nuestra relativa consideración.

Tras haber coceado a los demás euskaltzales, ha comenzado últimamente su trabajo de zapa contra el señor don Luis de Mitxelena. Este señor, que no tiene ninguna necesidad de zancadillas de mala ley, ha puesto al BELTZA en el lugar que le corresponde.

Después de todo, va a resultarnos muy saludable el que este señor haya sacado a la luz todo su maquiavelismo, para mantener en adelante alerta nuestra guardia contra sus maquinaciones... (Nemesio Etxaniz, 1992).

Horrelako gauzetan zaila da epaiketa batean balioa izango zuketean frogak aurkeztea, baina, guretzat, Nemesio Etxanizen lekukotasuna sinesgarritasun osokoa da, are gehiago hasieran batere aurkakotasunik gabe eta aldekotasunez onartu baitzuen haren izendapena, eta zenbait poema itzuliren hitzaurregile ere hortxe nonbait izan baitzuen.

Alde iluna ere izan zuen argi eta garbi Antonio Arrue euskaltzainak, eta batez ere horixe azaleratu nahi izan dugu artikulu honetan, alde argiak bestetan azaleratuak ditugunez gero.

3. Laburbilduma

1954an egin zuten Antonio Arrue euskaltzain, euskararen alde eginak zituen merituegatik baino gehiago egin zitzakeenengatik, besteak beste, euskarazko liburuak argitaratzeko eta biltzarrak egiteko baimenak lortzen

eman zezakeen laguntzagatik; karlista tradizionalista izanik, euskaltzale gerra-galtzaileek ez zituzten adiskideak eta harremanak zituen erregimenean norbait zirenen artean, bera ere izan baitzen norbait Francoren erregimenaren baitan –Alfonso XIII.a erregeak 1926an sorturiko Meritu Zibilaren Ordenaren domina eman zioten 1964an, Espainiako estatuaren zerbitzuan egindako merituengatik, eta 1967tik 1971era, familia ordezkari izan zen Espainiako Gorte Organikoetan-.

Liburuak argitaratzeko –*Peru Abarka* 1956an, *Gero* 1964an, *Auspoa* saila.– eta Euskaltzaindiaren biltzarrak –Arantzazu, 1968– eta halaber bertso txapelketak –60ko hamarkadan– antolatzeke laguntza eman zuen. *Egan* eraberritzeko ere bai 1954an, eta gastronomiaz idatzi zuen euskaraz eta zenbait literatur kritika ere egin zituen euskaraz; beraz, karlista tradizionalista euskaltzale gutxiatariko bat izan genuen dudarik gabe. Dominaren aurkia da hori, eta alde goresgarri hori aitortu zaio: Aita Villasantek, Aita Zavalak, *Egan*-eko Gillermo Etxeberriak, nik neuk, eta berriki Manuel Martorellek.

Era berean, Francoren erregimenaren atxikitzaile gisa, eman zioten Meritu Zibilaren Ordenaren dominaren merezidun gisara, azpijokoan aritu zen Nemesio Etxaniz edo On Manuel Lekuona bezalako jeltzaleen aurka, haien merituak ezkututzen eta haien jarduera publiko euskaltzalea oztopatzen. Alde batera, erregimenak erregio-hizkuntzatzat jotako euskarari ezartzen zizkion muga hertsizorrotzak zabaldu nahian bezala, baina bestalde muga hertsiz horiek ezin eramanak eta ezin gordeak zitzaizkien euskaltzale finei mugak ezarriaz edo oroitaraziaz, erregimenaren aldeko ezkutuko lan zikinean.

Alde biei erreparatu gabe, on-gaitzei kasu eman gabe, Antonio Arrueren jardueraren irudi faltsua gera liteke gure kultur memorian. Eta bidegabea litzateke!

Bibliografia

ARRUE, Antonio, 1979, *Jan-edanak*. Prest. Luis Villasante. Donostia: Aurrezki Kutxa Probintziala.

———, 2008, *Idaztiak eta hitzaldiak*. Prest. Antonio Zavala. Bilbo : Euskaltzaindia. Baita: http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/72482.pdf.

ETXANIZ, Nemesio, 1992, *Izotz-kandelak (eleberria) Gobernadore jaunari eta beste zenbait jauni (gutunak)*. Prest.: Iñaki Seguro. Donostia: Elkar.

MARTORELL, Manuel, 2011, «Antonio Arrue, el carlista que colaboró en el renacimiento de Euskaltzaindia», *Euskera*, 2011, 56, 3, 847-872.

SUDUPE, Pako, 2011, *50eko hamarkadako euskal literatura. II. Kazetaritza eta saiakera*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

TORREALDAI, Joan Mari, 2000, *Artaziak*. Zarautz: Susa.